



Sor Antoniaren urrezko ezteiak (1983)



Sor Antonia Azpilicueta Goñi eskertza mintzaldi bat ematen, 1983an, bere urrezko ezteietan, Iruñeko Santa Catalina ikastetxearen kaperan.

Antonia Azpilicueta Goñi (1910-1993) karitatearen alaba izan zen, 1933tik, eta 1983an bere urrezko ezteiak ospatu zituen, Iruñeko Santa Catalina ikastetxe erlijiosoan, hango irakaslea baitzen. Antoniak mekanografia eta takografia eskolak eman zituen hasieran eta, aurrerago, administrari izateko Lanbide Heziketakoak. Diotenez, lana ere bilatzen zien neska graduatu berriei.

Lezaunen jaioa zen Antonia, 1910ean. **Vicente Azpilicueta Gorospek** eta **Nemesia Goñi Perez de Obanosek** izan zuten azken haurra izan zen; hamahirugarrena. Eta bere anaia-ahizpa guztiak bezalaxe, Antonia ere ez zen Lezaunen bizitzen gelditu. Azpilikueta tarrek 400 urte zeramatzen Lezaunen bizitzen, baina Vicente eta Nemesiaren familiak oso-oso pobrea izan behar zuen, den-denek handik ihes egin behar

izan baldin bazuten. Antonia moja sartu zen, Karitatearen Alabetakoa.

Moja bezala, Antoniaren lehenbiziko destinoa Barruelo de Santullãn izan zen (Palentzia, Gaztela, Espainia). Baina berak misio-lanak nahiago omen zituen eta Kubara bidali zuten. Han zegoen Fulgencio Batistaren diktadura bitartean eta Kubako iraultza gertatu zenean handik alde egin behar izan zuen. Eta Iruñera etorri zen.


Data: 1983ko otsailaren 13a.

Lekua: Iruñeko Santa Catalina ikastetxeko kapera.

Egilea: Ezezaguna.

Dimentsioak: 15 x 10 cm.

Transkripzioa: Argazkiaren atzeko aldean hauxe dago idatzita: "Con cariño y gratitud. Vuestra tía. Sor Antonia A [sinadura gisa]. 13-2-1983".



(tikulu hau laguntzen duen argazkiko kopiarena).

